

Deba
ETORKIZUNA ORAIN



deba
berri

2023ko OTSAILA 21. zbk.



DEBA:
ONDAREAN
ABERATS



Debaberri 21
2023ko otsaila

AURKIBIDEA

2Udaletxetik
3Gobernu Planaren balantzea
4-5-6Dagigun
7Dagigun.
	Elkarrizketa. Esther Zarrabeitia. Debegesa
8Aurrekontuak
9Osio
10Udal bulego berriak
11Oinherri-Herri hezitzailea
12Irisgarritasuna hobetzeko lanak. Ludoteka
13Kiroldegiko eguzki plakak
14Tene Mujjka. Beka eta argitalpenak
15Martxoak 8
16HAB
17-18-19Laburrak. Agenda
20Kolaborazioa. Euskal Kostaldeko Geoparkea
21Kolaborazioa. Itziarko Auzo Udala
22-23Kolaborazioa. Alderdiak
23Gobernuarekin harremana
24Elkarrizketa. Xabier Carrillo. Aitzuri abesbatza



Deba Udala

© Argitaratzailea: Debako Udala.

Egilea: SharinF5 Kooperatiba

Lege Gordailua: L.G.
SSPRAXIAS/FUNCIONES
EJECUTIVAS918-2012



GILEN GARCÍA BOYRA - DEBAKO ALKATEA

ETORKIZUNERA BEGIRA

Heldu gara agintaldi honetako amaierara eta horrekin batera azken Debaberrira. Ez edonola, gainera: 2019an begiak jota genituen erronka estrategikoei helduta eta eguneroko lanei erantzunda.

Izan ere, gauza asko egitearekin batera, benetan herri bezala erabaki estrategikoak hartzeko oinarri sendoak jarri baititugu. Plan Orokorren gaiarekin, esate baterako. Jauzi kualitatiboa eman dugu administrazioaren gaurkotzean eta hobekuntzan, bai Debako Udalean zein Itziarko Auzo Udalean. Next diru-laguntzetara aurkeztearekin bultzada emango digu hainbat proiekturi.

Oinarri horiek baditugu egiteko moduan ere indarra jarri dugulako da. Herritarrekin eta eragileekin elkarlanean aritu gara, jarduteko eredu berriak erabiliz, eta uste genuena baino harago joan gara. Akordioetarako prestutasuna ere izan dugu, denon hobe beharrez aritzeko helburuarekin, azken adibidea 2023ko aurrekontuak onartzeko prozesua. Zuei guztiei esker izan da hau guztia posible eta eskerrak eman nahi dizkizuet horregatik.

Deba etorkizunera begira jarri dugu. 'Etorkizuna orain' aldarrikatu dugu agintaldi honetan, eta marrazten genuen etorkizun horren lehen trazak egin ditugu; forma berriak marrazteko, horiei koloreak emateko eta marrazkia osatzeko prest gaude. Hori da Debak behar duena.

MIRANDO AL FUTURO

Llegamos ya al final de esta legislatura y por tanto también llega el último Debaberri, habiendo respondido a los retos estratégicos que teníamos en el punto de mira en 2019 y respondiendo al trabajo del día a día.

Hemos hecho muchas cosas al mismo tiempo que poníamos unas bases sólidas para poder tomar decisiones estratégicas como pueblo. Por ejemplo, con el tema del Plan General. Hemos dado un salto cualitativo en la actualización y mejora de la administración, tanto en el Ayuntamiento de Deba como en Itziarko Auzo Udala. Con las subvenciones Next impulsaremos algunos proyectos.

Si contamos con esas bases es porque también hemos puesto énfasis en las formas. Hemos colaborado con la ciudadanía y agentes, llegando incluso más allá de lo que pensábamos. Hemos mostrado también disposición para llegar a acuerdos, con el objetivo de trabajar por el bien común, como con la aprobación de los presupuestos de 2023, como último ejemplo. Todo esto ha sido posible gracias a todas vosotras y vosotros, por lo que quiero daros las gracias.

Hemos puesto a Deba mirando al futuro. En esta legislatura hemos reivindicado que el futuro empezaba ahora y hemos dibujado los primeros trazos de ese futuro que imaginábamos. Ahora estamos dispuestas a dibujar nuevas formas, a darles color y completar el dibujo. Eso es lo que necesita Deba.



2019-2023 Gobernu Planaren betetzearen gaineko balorazio ona egin du Udal Gobernuak

2019ko udazkenean aurkeztutako 2019-2023 Gobernu Plana eragile eta herritarrengandik jasotako beharretatik osatu zuen Udal Gobernuak, guztira 100 neurri zehaztuta.

Pertsonak erdigunean jarriz eta euren bizi kalitatea hobetzeko asmoz bost ardatz nagusi definitu ziren: Udal Antolaketa, Gizarte Politikak, Tokiko Garapena, Kultura eta Herri Ondarea, eta Berdintasuna eta Partaidetza.

Urtez urte 30 neurri inguru aukeratu eta balorazioa egin du Udal Gobernuak. Eta agintaldia bukatzeko hilabete batzuen faltan, balorazio orokorra egin nahi izan du.

Gilen Garcia Boyra Alkatearen hitzetan, “oro har, oso positiboa da balantzea. Kontuan izanda legealdia hasi eta 9 hilabete igarotzerako

pandemia hasi zela eta ia urte eta erdiz udalerriko dinamika ez zela ohikoa izan, uste baino ekimen gehiago egin ahal izan dira azkenean”.

2019ko udazkenean planaren aurkezpena egin zenean aipatutako ideiak ere ekarri ditu gogora Alkateak: “Deba etorkizunera begira jarri nahi genuela esan genuen, herriari kolorea eman eta bidea elkarlanean oinarritu. Uste dut horiek egin ditugula eta une honetan udalerrri hobeago baterako eta debarren ongizatean hobetzeko oinarri sendoak ditugula”.

Orotara 100 neurrietatik 79 egin edo jarri dira martxan. Gainontzekoak baloratzea eta eguneratzea da Udal Gobernuaren asmoa. Aurreikusita dauden Etxebizitza Planak eta Azterketa sozio-ekonomikoak emandako emaitzen arabera

egokituko dira, pixkanaka gauzatzen joateko.

Gainera, Gobernu Planean aurreikusi ez ziren bestelako lanak ere egin dira; hala nola, irisgarritasunari edo mugikortasunari dagozkienak (Miramar pareko semaforoa, aparkaleku eta zebra-bideen margo-tzeak, asfaltatze lanak...), berdegu- neen zaintza zerbitzuaren kontra- tazioa eguneratzea, Merkataritza Berrindartzeko Udal Plan Berezia, hilerri berriko ordenantza, pandemiako ez-ohiko zerbitzuak eta lanak (zaintza sarea, hezkuntza zaintza-sarea, aterpetxea pertsona zaurgarrientzat egokitzea, desinfekzio lanak...), ondareari lotuta Deba eta Mutriku arteko zubiaren interpretazio gunea eta elizako organoaren konponketa.



Dagigun partaidetza gunearen bitartez etorkizuneko Debako irudian marrak, trazak eta koloreak jartzen

2021. urteko uztailaren 15ean aurkezpena egin ondoren, dagoeneko hilabete batzuk pasa dira Dagigun partaidetzarako gunea sortu eta Udala lanean hasi zela. Hasieran egin ziren partaidetza-saioetatik atera ziren ondorioak herritarrekin partekatu ondoren, tailerrak, hitzaldiak eta abar antolatu ziren. Bederatzi hilabeteetan zehar guztira 250 herritarrek (% 8,5) parte hartu dute prozesuko une eta fase ezberdinetan. “Egingo genuela esan genuen, eta egiten ari gara. Proiektu zehatzetatik abiatuta nolako herria nahi dugun irudikatzen eta gauzatzeko bidea egitean ari gara herritarrekin eta eragileekin elkarlanean”, Gilen Garcia alkatearen esanetan.

Dagigunen Zumardiko pasealekuari buruzko herritarren eztabaida irekitzea abiapuntu gisa hartu eta lanketa egiten hasita, Turismoko Europako Next funtsetarako deialdia zabaldu zen. Diru-laguntza hori jasotzeko oinarrizko proiektua osatu, eta aurkeztu zen. Bertan, interbentzio ezberdinak egitea egon zen mahai gainean: Gudarien plaza oinezkoentzako bihurtzea, autobus geralekua eta merkatu-eraikineko paseoa kristalarekin ixtea, bere ondarea erakutsiz eta erabilera etorkizunera ekarriz.

Funts horietara aurkeztu ziren proiektuek ezadostasuna sortu zuten alderdien artean. Aurkeztutako proiektua eta Zumardiari buruzko prozesutik ateratakoak partekatzeko parte-hartze saioak egin ziren herritarrekin. Haien iritziak, kezak eta zalantzak jaso ziren bertan. Azkenean autobus geltokiaren proiektua atzera botatzea eta beste bi proiektuekin aurrera egitea erabaki zen.

Geltoki berria egiteko proiektuak aurrera egin ez badu ere, baikorra izan da prozesua Alkatearen ustez, herritarrek, “lehenengo aldiz, geltoki berria oinarri sendo batekin irudikatze aukera izan dutelako”. Udalak Next funtsetarako tren geltokiari lotuta aurkeztu zuenaren harira, Euskotreneko adituekin bildu zen, eta ingeniariatza batek marraztu zuen zein aukera egon zitezkeen tren-geltokia tokiz aldatzeko eta autobus geltokia non joan zitezkeen irudikatzeko.



ERABAKIGUNEAK ERE PARTEKATUTAKOAK

Dagigunen hartu diren erabaki oro herritarrekin, herriko eragileekin eta udalbatzako gainontzeko alderdiekin batera hartu da. Eta puntako aholkularitza du kooperazio prozesua garatzeko eta goi mailako talde teknikoak: udal arkitektoa, Debegeako arkitektoa, hirigintzako arkitektoa, ingeniari profesionala eta dinamizatzaile jantziak.

Bide luzea aurreikusten zen, fase ezberdinetan garatu beharrekoa. Udazkeneko partaidetza saioetan bildutako herritarren ekarpenekin lanketa teknikoak burutu zuen aipatutako talde teknikoak. Eta oinarriko proiektua Europako Next Funtsetara aurkeztea erabaki zen. “Sekulako erronka izan zen, lan tekniko guztia oso epe laburrean egin behar izan zelako eta horrek erakunde ezberdinen arteko ezinbesteko koordinazioa eskatzen zuelako”, esan du Alkateak.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planaren bitartez Next Funtsetatik 834.103,24€ jaso dira. 2023. urtean HAB ibilbidearen lanetarako eta PR ibilbideen konponketarako diru-laguntza eskatzea aurreikusi da. Lortuz gero, 1.500.000€ko diru kopurua jaso lezake Debak.

Dagigunen barruan Hirigintzako Batzorde Mistoak sortu zen debarrek herriko politikan parte har dezaten. Iazko irailetik 4 aldiz elkartu da batzordea. 2023ko urtarrilean egin zen azken batzorde mistoa, eta bertan, hausnartu zen ea ordutik aurrera nola hartuko diren erabakiak, gehienbat Hiri Antolamenduaren Plan Orokorriari (HAPO) begira.

Plan orokor horren barruan, lehentasuna etxebizitza-plan berri bat egiteari eman zaio. Lehenengo urratsa proposamen bat egitea izango da, ondoren Udaleko idazkaritzatik bideratuko dena. Bigarrena partaidetza prozedura bat aurrera eramatea izango da. Legez, HAPOaren garapenean, herritarren partaidetza ezinbestekoa da. Ohiko prozeduretan, lehenengo proiektua landuko litzateke eta ondoren parte-hartzea bideratu. Debaren kasuan, ordea, alderantziz egin da, hau da, lehenengo partaidetza plangintza bat osatu da Udaleko politikari eta teknikariek, eta ondoren proiektua landuko da.

Hirugarren urratsa azterketa sozioekonomikoaren lanketa izango dago. HAPOak egiten direnean, azterketa ugari egiten dira bere baitan. Debari dagokionean, Itziarko Auzo Udalean akordioa hartuta zuten azterketa sozioekonomikoa egiteko, eta hori baliatu du Udalak. Horrela, udalerrri osoko azterketa bat eginda egongo da.

Azterketa sozioekonomikoa oinarri gisa hartuta, Debaren argazki bat aterako da, eta bertan ikusiko da debarrek zein behar dituzten, eta horien arabera etxebizitza-plan erreal bat sortuko da.

“Era honetara lan eginda, orain arteko egiteko modua aldatu du egungo Udalak. Nolakotasunari eman zaio garrantzia. Nolako herria edukiko dute debarrek datozen 20 urtetan? egungo beharrak identifikatu behar dira eta horien erantzutea izan behar da helburua. Etxebizitza berri horiek herritarren etxebizitza-eskubideak bermatu behar dituzte”, esan du Gilen Garciak.




ZUMARDIKO HAUR- PARKEA

Dagigun lankidetzeta gunean 2021eko udazkenean egindako partaidetza prozesuan Calbeton Zumardiko gune ezberdinei buruzko gogoeta egin ahal izan zuten herritarrek. Horietako bat Zumardiko jolas parkea izan zen, eta ekarpen interesgarriak jaso ziren zenbait herritarren (heldu zein haur) aldetik. Hobekuntza proposamenak jaso zirela ikusita, Udal Gobernuak gune honi buruzko lanketa berezia egin nahi izan du.

Fase ezberdinak antolatu dira udaberria bitartean. Batetik, Luzaro ikastetxearekin elkarlanean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen saioak egingo dira. Tutoretza saio bana egingo da ikasgela bakoitzean, jolas parkean gehien eta gutxien gustatzen zaizkien elementuak identifikatuko dituzte, eta proposamenak egin. Ondoren, talde bakoitzak ordezkari bana aukeratuko du, Hiritik At elkarteko hezitzaileekin informazio guztia bateratu eta ideia nagusiak zehaztuko dituzte. Bestetik, herritarrekin saio irekiak egingo dira. Kasu honetan ere gune ezberdinen azterketa egiteko aukera eskainiko da (jolas gunea, eserlekuen kokapena, argiztapena, zoruaren drainatzea...).

Ekarpen guztiak jaso ondoren, Hiritik At elkarteko hezitzaileekin eta udal teknikariek baloratu eta proposamen ezberdinak landuko dira, bigarren saio batean herritarrekin partekatu eta jolas parkean egin ahal izango den interbentzio definitibo zehazteko. Prozesu hau guztia uda bitartean egitea aurreikusten da.



El Ayuntamiento puso en marcha el espacio para la cooperación Dagigun, donde desde su presentación en julio de 2021, han participado 250 personas (8,5 %) durante nueve meses. El punto de partida fue el proceso de la Alameda, pero acto seguido se presentaron las ayudas de los Fondos Next Europeos de Turismo, y el Ayuntamiento presentó un proyecto para acogerse a esta subvención, de la cual se han obtenido 834.103,24€. Se presentaron la peatonalización de Gudarien plaza, la parada del autobús y el cierre con cristalera del Paseo cubierto.

Al no conseguir consenso en todos los temas, se decidió dejar a un lado el tema de la parada del autobús, pero se llevará a cabo la reflexión sobre las necesidades de una parada de autobús y la reordenación de la del tren. Sin

embargo, el Alcalde valora muy positivamente el proceso ya que la ciudadanía ha podido visualizar la nueva estación con una base sólida y se ha dado un proceso de debate muy interesante.

En el espacio Dagigun las decisiones se han tomado con acuerdos amplios teniendo en cuenta la opinión de la ciudadanía, las formaciones políticas y asociaciones.

A través de Dagigun se creó la Comisión Mixta de Urbanismo para facilitar que la ciudadanía participe en las decisiones del ámbito urbanístico. Desde septiembre del año pasado la Comisión se ha reunido 4 veces. En enero se celebró la última comisión mixta donde se reflexionó sobre cómo se van a tomar las decisiones a partir de ahora, sobre todo de cara al Plan General de

Ordenación Urbana (PGOU). Además, cuenta con el asesoramiento para el desarrollo del proceso de cooperación y un equipo técnico de alto nivel.

Dentro de este Plan General, se ha priorizado lo siguiente: la realización de un nuevo Plan de vivienda; que junto con la realización de un procedimiento de participación para el desarrollo del propio plan y la elaboración de un estudio socioeconómico ayudarán a identificar las necesidades de la ciudadanía.

“De esta manera, el actual Ayuntamiento ha cambiado la forma de hacer las cosas, haciendo hincapié en la cualidad. ¿Qué pueblo tendrá la ciudadanía en los próximos 20 años? Seguiremos dibujándolo en colaboración”, apunta el Alcalde Gilen García.



ESTHER ZARRABEITIA

“Debako Udalarekin une honetan gauzatzen ari garen proiektu zehatzek Debabarreneko eskualdea indartzeko balioko dute”

Dagigun partaidetza guneak eman duen emaitzetako bat Hirigintzako Batzorde Mistoan da. Bertan parte hartzen du Debegesako Hirigintza eta Birgaikuntza Arloko arduradun Esther Zarrabeitiak.

Zertan datza Debako Udalaren eta Debegesaren arteko lankidetzak?

Debegesan Debabarrena eskualdean garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin egiten dugu lan. Zentzu horretan eskualdeko udalerrri guztiekin elkarlanean dihardugu hobekuntza-ekintza zehatzak bideratzeko betiere eskualdeko beharrei erantzuteko. Gainera, Debabarreneko zortzi udaletxeek eratzten duten Administrazio Kontseiluan Debabarreneko Plan Estrategikoa eta urteroko Gestio Plana onartzen dira eta guk lantaldean plan horietan agertzen diren proiektuak bultzatzen ditugu urtean zehar.

Proiektu zehatzetan ere egiten duzue lan.

Testuinguru horretan, aipatutako plan horietan badaude proiektu zehatzak elkarlanean garatzen ditugunak Debako Udalarekin: Estuarioko Plan Berezia, Itziarko Enpresa Parkea, Euskal Kostaldeko Geoparkea, Historiaurreko Bailara edo Ermittia, besteak beste. Proiektu horiek Debabarreneko gure eskualdea indartzeko eta posizionatzeko balioko dutela uste dugu.

Zein da Debegesaren papera Debako Hirigintzako Batzorde Mistoan?

Politikariek eta teknikariek osatutako mahaia da, hirigintzari lotutako proiektuei ekiteko. Proiektuei ikuspegi desberdinak emateko helburu horretan, Debegesaren lana eskualdeko ikuspegia ematea da eta hirigintza alorrean gure ezagutza partekatzea.

Zertan da Next Generation EU funtsen gaia?

Debegesak hitzarmen bat sinatu du Eusko Jaurlaritzarekin, Next Generation EU funtsak bultzatu, izapidetu eta inbentzatzeko erakunde laguntzaile eta birgaitze-bulego izateko. Funts horiek etxebizitzaren eraikinak birgaitzeko erabiliko dira, energia-eraginkortasuna hobetzeko. Zerbitzu hau Debegesako gure instalakuntzetan eskaintzen da eta hitzordua hartu behar da lehenengo; 943 82 01 10 telefonora deitu eta Igorrengatik galdetu, berak lagunduko zaituzte. Gainera, zerbitzua Deban ezagutarazteko, datozen asteetan Next Generation EU laguntza ekonomikoari buruzko informazio-saioa antolatzea aurreikusten da, prozesuan parte hartzen duten eragile guztientzat (besteak beste, finkak kudeatzen dituzten enpresentzat, eraikuntza- edo arkitektura-enpresentzat), beren eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko obrak sustatu nahi dituzten jabe-komunitateentzat eta bizilagunentzat.

“En este objetivo de dar diferentes perspectivas a los proyectos, la labor de Debegesa en la Comisión Mixta de Urbanismo es aportar una visión comarcal y compartir nuestro conocimiento en materia urbanística”.

Udal zerbitzuak hobetzea helburu duten aurrekontuak onartu ditu udalbatzak



Argazkia: Ander Salegi

El pleno aprueba un presupuesto de algo más de 9 millones de euros con el objetivo de mejorar los servicios municipales.

Otsailaren 16an egindako ez-ohiko osoko bilkuran 9.217.111€ko aurrekontu bateratua onartu du Debako udalbatzak. Gipuzkoako Foru Aldunditik ia 4.500.000€ko Foru Funtza aurreikusten da. Aurreikusten diren inbertsioetako batzuk dira: lurren erosketa (50.000€), ludotekako obra (24.375€), eguzki plakak (8.000€) eta LED argiak (8.000€).

Udazken garaian ohikoa den lanketa egin ondotik, 2023ko aurrekontuak abenduaren 20ko osoko bilkuran onartzea zen Udal Gobernuaren asmoa, elkarlana oinarri, alderdietako nahiz Auzo Udaleko ordezkariekin eta herriko eragileekin landu zirelako, 2019-2023ko Gobernu Plana bide-orri hartuta eta udalerriko beharrak aztertuta.

Oposizioaren ezezkoa jaso ondoren, ezin izan ziren abenduan onartu, eta urte hasiera baliatu du Udal Gobernuak 2023ko aurrekontuak negoziatzen jarraitu eta onartzeko. Azkenean, EH Bilduren baiezkoarekin (6), Debarren Ahotsaren abstentzioarekin (4) eta EAJ- PNVren ezezkoarekin (3) onartu dira. Modu horretan, udal jarduna normalizatu eta prozedurak azkartu ahal izango dira, aurreko urteko aurrekontuak luzatzea ekidinda. Osoko bilkuran Gilen Garcia alkateak hiru aldeei eskerrak eman zizkien egindako lanagatik.

Udal antolaketari dagokionez, lehentasuna izan du Hirigintza Saileko pertsonalean inbertsio ahalegin berezia egiteak. Horrez gain, Simon Berasaluze plazako udal bulegoak atontzea, Agirre jauregiko entsegu geletan hobekuntzak egitea eta Agerretzeko depositua birgaitzea aurreikusi dira inbertsio nagusien artean. Sorozabal

pasealekuko begiratokia txukuntzeko diru-laguntza ere lortu da, 2023an exekutatu ahal izateko.

Gizarte Zerbitzuen alorrean beharren arabera doikuntzak egin dira diru-partidetan eta martxan dauden lanketei jarraipena emango zaie: zahartzaro aktiboa, zaintza eredu, kulturartekotasun planeko ekintzak, zaintza sarea, elikagai bankua, alokairu diru-laguntzak...

Kultura eta euskararen ohiko ekintzak eta eragileekin egiten diren hitzarmenak aurreikusi dira. Zuhatza euskara elkartarekin, adibidez, diru-partida handitzea adostu da, aldizkariaren eta euskal kulturgintzaren jarduna hobetu asmoz. Horrez gain, pandemiaren eraginez elkarleen diru-laguntzetan egin ziren murrizketak bertan behera utzi eta lehengo partidak berreskuratu dira. Gainera, LHko ikasleentzat online bidezko euskarazko mintzapraktika programa ere martxan jarriko da.

Partaidetzaren alorrean hainbat lanketa aurreikusi dira: ludoteka zerbitzua, Zumardiko jolas parkea, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra eta herri eredu lantzen hasteko aurrelanak eta azterketak (etxebizitza, ingurumena, mugikortasuna, zaintza, azterketa sozio-ekonomikoa...) ... Gainera, herri ereduari begira, Oinherri herri hezitzaileen filosofia sustatzen duen elkartarekin bazkidetza eta lankidetza abiatuko da.

Jasangarritasun energetikoari dagokionez, martxan dauden zenbait lani jarraipena emango zaie: argiteria publikoa eguneratzea, eraikin publikoen ziurtagiri energetikoak egitea... Eta energia ekoizpenerako kooperatiba sortzeko azterketa ere aurreikusi da.



Segurtasuna eta espazio berriak irabaziko dituzte Osioko bizilagunek

Udal Gobernuak Osiorako sarrera-irteera hobetzeko hartuta zuen konpromisoa betetzeko, kale horretako 2. zenbakidun eraikina zegoen lursaila erosi zuen. Eraikina egoera oso txarrean zegoela ikusita, eraistea erabaki zen, eta horretarako lanak 2022. urteko azaroaren amaieran hasi ziren. Eraikina eraistearekin batera airetik zihoazen instalazioen lurperatzea eta gutxieneko urbanizazio bat -asfaltoa eta seinalizazio horizontala- egitea aurreikusi zen. Egurki Eraikuntzak, S.L. enpresari esleitu zitzaion lana.

Obra hori hasita zegoela, Osio 4ko lursaila erosteko aukera izan zuen Udalak, eta hala egin zuen. Beraz, lursail berri horren urbanizazioa jatorrizko proiektuari gehitzea erabaki zen. Bi lursail horietan jarduketak eginda, hainbat hobekuntza lortuko dira.

Batetik, Osio kaleko sarrera-irteeran ikusmena hobetuko da, segurtasuna handituz. Kalera sartzeko, gaur egun ez bezala, ibilgailuek bi norabidetako errepide bat izango dute. Semaforoak bertan utziko dira, eta N634 errepideak egun hondoratuta duen eremua sendotu eta konpondu egingo da.



Hondakinak jasotzeko kontainerrak lekuz aldatuko dira, gaur egun dauden lursailetik kendu eta kanpora aterata. Horrela, hondakinak jasotzeko

kamioiari lana erraztuko zaio eta aparkalekuan lekua irabaziko da.

Artzabaldik datorren espaloiri, eremu horretan, jarraipena emango zaio eta eremu zehatz horretan oinezkoentzako eremuaren zabalera asko hobetuko da.

Bestetik, Osio kalea eta Gaztetxearen aurrealdearen artean dagoen mailen aldea, hormigoizko horma batzuekin konponduko da, eta Gaztetzearen aldetik, hormigoizko hormak banku bat sortzeko balio du. Banku horrekin belardi txiki bat inguratuko da.

Gaztetxearen aurrealde horrek, alegia, sortzen den plazatxoak -asfalto inpresoarekin zolatuko denak- brigadakoen biltegi sartzeko eta Gaztetzeko sarrera zabalduko ditu. Halaber, plazatxo horretatik Osio kale aldera, jaisten joango den arrapala bat sortuko da mailen arteko aldea gaintzeko. Arrapala hori, errepidearen aldetik, eskudel batekin babestuko da, eta jarraian, oinezkoen ibilbide zehatz bat izate aldera, oinezkoentzako eremu bat eta zebrabide bat margotuko dira lurrian. Era horretan, urbanizazio berri hori eta Osioko eta Astilleroko beste espaloia komunikatuta geratuko dira.

Obra egiten dela baliatuta, eremu horretako argiteria publikoa aldatuko da LED teknologiako luminariak jarrita.

Egingo den lanaren berri bertako bizilagunei zuzenean eman zieten Alkateak, Alkate ordeak eta udal aparejadoreak otsailaren 8an egindako bilera ireki batean.



Simon Berasaluze plazara lekualdatuko dira Turismoa, Geoparkea eta Udaltzaingoa

Datozen hilabeteetan, Turismo, Euskal Kostaldeko Geoparkea eta Udaltzainen bulegoak kokagunez aldatuko dira, Simon Berasaluze plazara, hain zuzen ere. Bertan, bakoitzak bere bulego propioa izango du.

Eraikin laukizuzena da bulegoak hartuko dituen. Turismo bulegoa eta Geoparkearen egoitza komunikaturik egongo dira euren artean. Udaltzainen kasuan, ordea, estankoa izango da, eta atzetik ez da lotuta egongo beste bulegoekin. Hiru bulegoak bi portalek bereiziko dituzte.

Lokalak tokiz aldatzearen arrazoiak hiru dira: lehenik, Turismo bulegoari zentralitate gehiago eman nahi izan zaio. Orain arte egon den tokia Debako erdigunean dagoen arren, kale itxia da, eta ez dago pasoko tokian.

Bigarren arrazoiak Turismo eta Geoparkeko bulegoak bulego berdinean daudela da. Kokagune berrian, berezitatea egongo dira.

Hirugarrena, eta azkena, Udaltzainen beharrak betetzea da. Udan, bereziki, kontratazio gehiago egiten denez, egungo tokian ez dira baldintza optimoak betetzen ez herritarren ikuspegitik, ezta profesionalenetik ere. Esaterako, aldagelak generoaren arabera banatuta egon behar dira, eta egun ez daude hala.

Aldaketa honek onurak ekarriko dizkio herriari. Bulego berriek kokapen hobea izango dute, eta aldi berean, ikusgarriagoak izango dira. Udaltzainen kasuan, irisgarriagoa izango da bertaratzea bai autoz eta baita oinez ere.

HUTSIK GELDITUKO DIREN LOKALETAN ZER?

Hutsik geldituko diren bulegoak beste erabilera bat emango die Udalak. Egun, Turismo bulegoa dagoen tokian, ludoteka bat jarriko da, herritarren eskaerari erantzunez. Talde-politiko guztien arabera, Ludotekaren kokapena ona izango da, oinezkoen kale batera sarrera duena eta atzean, eskolako ataria eta jolasgunea dituena.

Udaltzainen egungo lokala Udaleko bulegoak gehituko zaie. Oraindik proiektua garatu gabe dagoen arren, etorkizunari begira, Udalaren asmoa udaletxeko beheko solairua eraberritzea eta XXI. mendeko beharretara egokitzea da. Bertan, sail ezberdinetako gestioak leku berdinean egiteko aukera izango du herritarrek. Harrera-guneaz gain, teknikariek eta Udaleko langileekin elkartzeko gunea ere egongo da. Modu honetara erosoagoa izango da.

Con el traslado de las oficinas de Turismo, el Geoparque de la Costa Vasca y Policía Municipal se mejoran la visibilidad y la accesibilidad y se ganan espacios para nuevos servicios.



Deba herri hezitzailea izan dadin nahi du Udalak

Herri hezitzaileen filosofiarekin bat egin du Debako Udalak eta Oinherri herri hezitzaileen sarera batzeko bidea hasi, elkarlanaren bitartez elkarrekin dituen helburu, printzipio eta lan ildoak Deban garatzeko helburuarekin.

Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarrekin herritar oro berez hezitzaile dela aitortzen du, eta, zazpi printzipiotan oinarritzen du bere xedea eta honela formulatzen du: jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzailea eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinean eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta ingurumen kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

Oinherri ekimena, euskararen, hezkuntzaren, kulturaren eta aisialdiaren inguruan lan egiten duten Euskal Herriko hainbat elkarte eta eragilek osatzen dute. 2012. urteaz geroztik, teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, parte hartzea sustatuz, balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin, Euskal Herriko txoko ezberdinetan herri hezitzaileen filosofia ereiteko lanean dihardu.

Con la inclusión de la filosofía de las ciudades educadoras se trata a la infancia como sujeto activo en la participación ciudadana.




ITZIAR IRIZAR Debako Alkateordea

Esperientzietatik ikasi

Haurrak eta nerabeak subjektu aktibo bezala ikusten ditugu guk ere eta hori txertatu nahi dugu aurrerantzean egingo ditugun politiketan. Herritarrekin partaidetzan ari gara lanean, eta hor haur eta gaztetxoak ere ikusten ditugu.

Proiektuaren indarguneetako bat da esperientzietan oinarritzen dela eta bertako kide izateak, aukera emango digu balore horietan oinarritutako politikak egiteko, baina ez hori bakarrik, Oinherriren lanarekin beste herrietako esperientzietatik ikasteko aukera ere izango dugu.

Hezkuntza ardura konpartitu bat bezala ulertzen hasi behar dugu. Herria eremu hezitzaile moduan sustatuz eta herritarrei, eragile hezitzaile moduan, balioen hezkuntzan duten protagonismoa aitortuz. Haurrak txikitatik eskubide eta betebehardun herritar bezala onartuz eta parte hartzea eguneroko ohitura bihurtuz, haiekin denontzako herri hobe bat eraikitzeko. Horretarako lan-tresna ezin hobe izango zaigu proiektu hau. Hala bedi.





Oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko hainbat lan egiten ari da Udala

Mugikortasunarena da 2023. urterako Debako Udal Gobernuak jarritako ardatzetako bat. Horri erantzuteko, eta aurretik zabalduzako bideari jarraituz, eta herritarrek egindako eskaerei erantzunez, oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko eta segurtasuna handitzeko hainbat jarduketa egiten ari da Udala otsailean zehar. Oro har seinalizazio- eta urbanizazio-lanak dira oraingoak.

Ifar kalean:

Errepidea koskarik igaro gabe gurutzatzeko zebra-bidea jarriko da. Horretarako, kale horretako 20. zenbakidun eraikinaren ibia baliatuko da. Horrek ez dio eragingo, ordea, Ibiari berari, bere horretan mantenduko baita, kaletik ibilgailuak ateratzeko erraila ere mantenduko da. Seinalizazio berria jarriko da.

Itsasbegi auzoan:

Oinezkoentzako pasarela irudikatuko da egun aparkaleku bat dagoen tokia baliatuz. Agerian dagoen erretena burdin-sareaz estaliko da. Igogailutik Itsasbegi 8 eraikineraino dauden koskak leuntzeko arrapala txikiak jarriko dira. Bihurgunean ispilu ganbila jarriko da eta, bihurguneko zabalera murriztuz gaizki aparkatzen den eremuan, aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen marra horia margotuko da.

Mogel kalean:

Errepideko abiadura 30km ordukoa dela gogorarazteko seinale gehiago jarriko da. Errepidean ibarbideak kokatuko dira abiadura-murrizten laguntzeko. Halaber, Mogel kalearen ekialdean bi banku berri kokatu dira.

Nafarroa Plazan:

Aparkalekutik Nafarroa Plaza 1 eraikinera daraman zebra-bidea irisgarri bilakatuko da, eta, bide batez, Zumarditik gune horretara doan tunelaren inguru osoa peatonalizatuko da. Zumardira ematen duen tunelaren eremuan aparkatzeko aukera kenduko da. Horrekin batera, kanalizazioak berritu egingo dira.

Aspaldiko eskaerari erantzunez ludoteka egiteko prozesua abiatuko da aurki

Aspaldidanik identifikatutako beharra da ludoteka zerbitzuarena. 12 urte arteko haurren aisialdi hezitzailearen hutsunea nabarmena da, eta azken urteotan erabat gailendu da behar hau. Udalak proiektu zirriborroa landuta du, baina herritarrekin zerbitzu honen zehaztapenak finkatu nahi ditu, partaidetzaren eta herri hezitzaileen filosofiari jarraituz.

Turismo bulegoa Simon Berasaluze plazara mugituta, Ifar kaleko 4. zenbakian dagoen lokala hutsik geratuko da (horri buruzko informazioa 10. orrialdean). Espazio irekia izanik, gune ezberdinak antolatzeko aukera ematen du. Gainera, Haur Hezkuntzako eraikinaren ondoan dago, eta txikien ikastetxeko kanpo espazioa erabilgarri izateko aukera ere aztertu nahi da.

Baina herriko gurasoekin, haurrekin eta gainontzeko herritarrekin egin nahi da lanketa hau. Zerbitzu hezitzaile honen izaera, ordutegiak, espazioaren antolaketa eta abar definitu nahi dira herritarrekin.

Horretarako, Aste Santu aurretik saio irekiak egingo dira. Aurrerago zehaztuko dira saio irekien datak eta orduak, baita metodologia ere.



Con las placas solares que se han instalado en el polideportivo el Ayuntamiento ahorrará 7.100 euros anuales

El Ayuntamiento da un paso más en las acciones encaminadas a renovar el alumbrado y reducir el consumo energético de los edificios públicos con la instalación de las placas solares en el tejado del polideportivo. La empresa encargada de la instalación de las placas ha sido Naturex Energías Renovables S.L.U.

La instalación solar fotovoltaica proyectada en el edificio contará con una potencia instalada de 26,68 kWp funcionando en la modalidad de autoconsumo colectivo con excedentes acogido a compensación. De esta manera, además de al propio polideportivo suministrará energía eléctrica para autoconsumo al Ayuntamiento y al Centro de día.

En cuanto a la potencia, se obtendrá una generación solar de 28.162,56 kWh año, que frente al consumo anual de 140.541,00 kWh de los tres edificios, implica que se generará de forma renovable un 20,04 % de toda la energía consumida por los tres edificios. En total, el Ayuntamiento ahorrará 7.100 euros anuales.

A pesar del cambio en la forma de generar energía, el vertido de CO2 no se reducirá, ya que el 100 % de la energía eléctrica que consume el Ayuntamiento proviene de energías renovables.

El coste de la instalación y mantenimiento de cuatro años asciende a un total de 33.605,01€ (+IVA). El Ayuntamiento solicitará la subvención estatal DUS 5000 para la instalación de las placas del polideportivo.

La instalación fue recogida en el Plan Climático y Energético de Deba e Itziar, finalizado el año pasado. Este plan de acción, además de mejorar la gestión de riesgos ante situaciones extremas, contempla una serie de acciones encaminadas a reducir el alumbrado y el consumo

energético de los edificios públicos. Por ello, el Ayuntamiento puso en marcha en el año 2022 otras actuaciones de ahorro energético:

- Sustitución del alumbrado por LEDs en varios edificios: Gazteleku, frontón Aldats, campo de fútbol, etc.
- Instalación de LEDs en el alumbrado público: Alameda de Calbetón, San Josepe, Osio, aparcamiento de la estación de tren, etc.

En 2023 se pondrán en marcha otras acciones del mencionado plan. Para llevar a cabo estas tareas se ha contratado a una persona, técnica de gestión energética y cambio climático por un periodo de 10 meses. Esta persona viene de la mano de Lanbide a través de un programa específico del Gobierno Vasco. El Ayuntamiento de Deba actualizará las obligaciones de la legislación de sostenibilidad 4/2019 de esta manera.

Udalak beste urrats bat eman du eraikin publikoetako argiteria berri eta energia-kontsumoa murrizteko ekintzetan, kiroldogiko teiltuan eguzki-plakak jarrita. Urteko 7.100 euro aurreztuko dira.



Alaitz Melgar, Tene Mujika bekaren irabazle

Alaitz Melgar Agirre irakasle barakaldarrak irabazi du 2023ko Tene Mujika beka neskame eta ama bakarra izandako bere amama zenaren bizitza ikertu nahi duen proiektu batekin. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako beka honek Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen ditu. Aurten aurkeztutako proiektuen artean Melgarrena eman du irabazletzat Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Cira Crespok osatutako epaimahaiak, eta orain urtebeteko epea izango du sarituak lana burutzeko. Ondoren, argitaletxeak liburua argitaratuko du.

Tene Mujikaren irudia eta lana ikusgarriagoa egiteko helburuarekin, beste hainbat argitalpen aurkeztu dira herrian orain egun gutxi.

Cira Crespo idazleak *Tene Mujika* udazkeneko argitan liburua idatzi zuen eta Debako Udalak argitaratu. Zer gertatu zen Errepublikara garaian lehen lerroan egondako emakume belaunaldi osoarekin? Zer ekarri zuen emakume abertzaleentzat gerra galtzeak? Idazle kotsakratuak, jendaurrean hitz egiten ohituak, ideia garbi eta aurrerakoiak zituzten haiek guztiak, oro har, gerra ondoren desagertu egin ziren gure memoriatik, emakumeak zirelako, harrezkero emakume zaharrak zirelako edota emakume euskaldun eta zaharrak zirelako.

Historia honen adibide eredugarria izan zen Tene Mujika, idazle debarra, Emakume Abertzale Batzaren Gipuzkoako lehendakaria izan zena. Gerra amaitu ostean, urte batzuk erbestean igaro ondoren, Debara itzuli zen. Eta, 70 urterekin, berriro hasi zen idazten; inoiz baino argiago agertuko du bere idazle sena eta idazteko beharra. Liburu honetan, 60 eta 70 hamarkadetan barrena Mujikak eusteko egindako ahaleginaren berri izango du irakurleak, idazlanak, poemak eta

iritziak; are gehiago, emakume idazle, euskaldun eta zahar bat belaunaldi berri eta iraultzaile oso batekin hizketan.

Nekane Goikoetxeak ere debarrari buruzko lan bat argitaratu du: *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak*. Ikerlanaren helburua bikoitza izan da. Batetik, Tene Mujika bere garaian kokatuta eta haren sozio-biografia aintzat hartuta, bere ekarpenaren balioa handitzea nahi izan du egileak; bestetik, Mujikaren azterketan genero ikuspegia txertatu du. Lan hori Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2019an sortutako Berdintzen bekaren lehenengo saritua da.

Hirugarren kultur ekimena **Belen Ibarrolaren** erakusketa ibiltarian bildutako lanen liburuxkaren argitarapena da, gerra garaiko eta gerraosteko indarkeria jasan zuten emakume aitzindariak omentzea helburu duena. XX. mendean errepresioa eta jazarpena pairatu zuten emakume aitzindariak dira erakusketaren protagonistak. Erakusketak bisitatu dituen herri bakoitzeko, bertako protagonista bat gehitu da erakusketara. Debaren kasuan, Tene Mujika. Erakusketa hori iaz ikusteko aukera izan zen herrian, eta orain bertako materialarekin egindako liburuxka aurkeztu da.

Zoru pelbikoa eta menopausia hizketagai nagusi aurtengo martxoaren 8aren bueltako egitarauan



2022an emakumeen zikloa izan zen landu zen gai nagusia, eta aurtengoak segida emango dio.

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, egitarau oparoa osatu du Udalak eragile ezberdinekin elkarlanean.

Zoru pelbikoa izango da aurtengo martxoaren 8ko egitarauo gai nagusietako bat. Azken urteotan gehiago entzuten den kontzeptua bada ere, nahiko ezezaguna da oraindik gure artean. Askotan haurdunaldiarekin edo haurdunaldi ondorenarekin lotzen da, baina gizaki guztiok dugun ehun eta giharrez osatutako egitura da, eta oso garrantzitsua da ahalik eta egoerarik onenean mantentzea.

Bi hitzaldi-tailer eskainiko dira gai horretan sakontzeko, SURA osasun zentro integraleko fisioterapeuta eta osteopataren eskutik, lehenengoa martxoaren 1ean Ispiluen Gelan eta bigarrena martxoaren 16an Burugorri Gainean. Helburua, herritarrekin egunerokotasunean baligarri zaien informazio praktikoa lantzea izango da, norbere zoru pelbikoa osasuntsu mantentzeko jarraibideak edo gomendioak partekatuz.

Menopausia izango da egitarau honen beste gai nagusia. XX. mendera bitarte gure amek, gure izebek, gure amamek, erabat ezkutuan eraman izan duten gaia da, eta oraindik ere kostatzen da jendaurrean modu lasaian, naturaltasunez, menopausiaz hitz egitea. Martxoaren 10ean Ispiluen Gelan eta 24an Burugorri Gainean egingo diren saioetan informazio eta esperientzia ezberdinak partekatuko ditu Amaia Vazquez Eguzkitza psikologo eta sexologoak, eta zalantzak argitzeko aukera ere egongo da.

Honekin lotuta, **Kilimateria** ikuskizuna eskainiko da martxoaren 19an Ispiluen Gelan. Kaitin Allenderen bakarriketa eta Oihane Perea, Irati Anda eta Iratxe Ibarren bertsuak uztartuta, klimaterio aroa umorez jantzikote dute.

Horrez gain, Leire Milikua Larramendiren **Lur gainean**, itzal azpian saiakera liburuaren aurkezpena egingo da Itziarren, Auzo Udaleko neguko egitarauaren baitan. Emakume nekazariak erdigunean jarritz, landa-eremuari buruzko testigantzak azalduko ditu egile abadiñarrak.

Herriko ipuin kontalariak ere parte hartuko dute martxoaren 8ko egitarauan, martxoaren 12an eskainiko dute euren emanaldia Ispiluen Gelan, eta egun berean Elbira dokumentala egongo da ikusgai Kultur Elkartearen. Abenduaren 26an estreinatu zen Elbira Zipitria hezitzaile eta euskaltzaleari buruzko dokumentala, haren heriotzaren 40. urteurrenean. Bere bizitzako gertaeretan eta herriari egindako ekarpenen sakontzen duen fikziozko dokumentala da.

Ohiko legez, martxoaren 8an elkarretaratzea egingo da Foruen Plazan, arratsaldeko 7etan, eta, jarraian, Klean Kantuz taldeko kideak bertatik abiatuko dira.

- M1, asteazkena, 18:00, Ispiluen Gela:** zoru pelbikoari buruzko hitzaldi-tailerra
- M5, igandea, 17:00, Burugorri Gaina:** Lur gainean, itzal azpian liburuaren aurkezpena
- M8, asteazkena, 19:00, Foruen Plaza:** elkarretaratzea **19:30, Foruen Plazatik abiatuta,** Klean Kantuz
- M10, ostirala, 18:00, Ispiluen Gela:** menopausiari buruzko hitzaldi-tailerra
- M12, igandea, 17:30, Ispiluen Gela:** Ipuin kontalariak **19:00, Kultur Elkarte:** Elbira dokumentala
- M16, osteguna, 18:00, Burugorri Gaina:** zoru pelbikoari buruzko hitzaldi-tailerra
- M19, igandea, 18:00, Ispiluen Gela:** Kilimateria ikuskizuna
- M24, ostirala, 18:00, Burugorri Gaina:** menopausiari buruzko hitzaldi-tailerra

La menopausia y el suelo pélvico los temas principales que se van a trabajar en el contexto del 8 de marzo, con el objetivo de naturalizar estos temas que aún hoy son tabúes.



Un viaje al Valle de la Prehistoria para conocer el incalculable patrimonio de Deba


Más de una persona habrá visto soportes con las etras HAB en diferentes puntos de la localidad. Son parte de un proyecto que mostrará cómo era el universo prehistórico en el Valle del Deba. Se trata de un recorrido temático que se ha denominado 'HAB Historiaurreko Bailara, Valle de la Prehistoria', de unos 6 km que une el centro de Deba con la entrada a la cueva de Ermittia.

Los objetivos del proyecto HAB son poner en valor el patrimonio relacionado con la prehistoria del Valle del Deba, convertirlo en un referente de la prehistoria de Euskal Herria, tanto en su vertiente turística como científica y educativa; crear un producto turístico atractivo y sólido en el seno del Geoparque y convertir el municipio de Deba en un referente en el conocimiento e interpretación de la prehistoria.

Se trata de un proyecto para dar a conocer cómo eran el ser humano, los animales y las relaciones entre ellos que vivieron en el valle del Bajo Deba entre hace 200.000 y 15.000 años. Es un recorrido que nos lleva a conocer las huellas que nos ha dejado el cambio climático que se ha dado en nuestra geografía y las condiciones de vida y recursos del ser humano paleolítico, integrado orgánicamente dentro de los geoitinerarios de la Costa Vasca. Estará dirigido a todo el público.

Se pretende dar visibilidad al recorrido, dando protagonismo a las huellas y representando a través de ellas toda nuestra fotografía prehistórica. Un gran porcentaje de las huellas se han hallado en este entorno.

Por su carácter itinerante, será un museo al aire libre a través de diversos recursos físicos comunes en los ámbitos de actuación. De esta forma, a medida que se avance en el recorrido, se podrán conocer las "salas" del museo.





Debako Gaztelekuak indartsu hasi du urtea

Aurtengo neguko oporraldian ere ez zuten aspertzeko betarik izan Debako gaztetxoek, askotariko ekimenak antolatu baitzituzten Gaztelekuan. Esaterako, hainbat irteera egin zituzten. Irteeretan nora joan, belaunaldi bakoitzarekin egindako asanbladetan erabaki zen: 12 urtekoekin zinemara joan ziren; 13 urtekoekin Txuri Urdin izotz jauregira; 14 urtekoekin Salting Iruñera; eta 15 urtekoekin Donostiako Laser parkera.

16 urtekoek, Debandank proiektuan murgilduta, opor horietan herri mailan Tonbola erraldoi bat antolatuko zuten. Gaztefutbol taldekoek Elgoibarren herrien arteko futbol topaketa izan zuten. Adinkako irteerez eta ekintza komunitarioez gain, nerabe guztiak batera parte hartuko zuten jarduerak ere egin ziren. Nerabe zein horien gurasoei Gaztelekua ezagutzeko gonbidapena ere egin zieten begiraleek urte hasieran.

Une honetan eta aurreikusitako moduan padel pistak egitea ez da bideragarria

Padel pistak egiteko herritarren eskaerari erantzuteko asmoz 2021eko udal aurrekontuetan horiek egiteko diru partida bat esleitu zen. Kokalekua kiroldegiko gaineko terraza izango zela erabakita, INJELAN enpresari proiektua enkargatu zitzaion.

Proiektu lanketa horretan, hainbat kontu tekniko zehazten ziren, garrantzitsuena kiroldegi gaineko terraza hormigoiarekin indartu beharra zegoela padel pisten gainkargarengatik eta, batez ere, jarri behar zen estalkiari eusteko.

Hasiera batean aurreikusita ez zeuden lan horiek egin beharrak aurrekontua asko handitu du. Guztira, bi padel pista eraikitzeak, tenis pista berritzeak eta padel pisten gainean estalpea jartzeak, 700.000 euroko aurrekontua du. Datu horiek ikusita, une honetan, eta baldintza horietan, ezinezkoa da proiektuarekin aurrera egitea. Eskaera egin zuten herritarrei egoeraren berri eman zaie. Aztertuko dira aurrerago eskaera horri erantzuteko egon daitezkeen aukera errealak.

Participamos en la iniciativa para dar visibilidad a la mujer científica

El Ayuntamiento de Deba, junto con Elhuyar, pusieron en marcha el proyecto 'Escaparates 11 de febrero' con el objetivo de dar a conocer la labor de las mujeres en el ámbito de la ciencia y la tecnología. Coincidiendo con el Día Internacional de la Mujer y la Niña Científica que se celebró el 11 de febrero, 4 comercios de Deba dedicarán su escaparate a una mujer del ámbito de la ciencia. Colocaron en la tienda ilustraciones y carteles con información relacionada con su trabajo y decoraron el escaparate de la tienda con motivos inspirados en su investigación. De este modo, los comercios se convirtieron en divulgadores de la vida y del trabajo de dichas científicas y contribuirán así a visibilizar la aportación que hacen las mujeres a la ciencia.



Una de las 12 mujeres que se han dado a conocer este año, concretamente la ingeniera biomédica e ilustradora científica Maddi Astigarraga Bergara es debarra.

Luzaro eskola también ha participado en la iniciativa y el alumnado tuvo la ocasión de charlar con Artigarraga.



Martxoaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira 'Deba 100 hitzetan' lehiaketarako lanak

Zazpigarren urtez, Cardenas Fundazioak eta Debako Udalak euskaraz zein gazteleraz parte har litekeen literatur lehiaketaren oinarriak argitaratu dituzte. Gaiari dagokionean, Debarekin, zuzenean edo zeharka, lotuta dagoen edozerekin zerikusia izan beharko du: historia, pasaia eta abar. Lanek ez dute 100 hitz baino gehiago izango (izenburua alde batera utzita). Parte hartutako lanak paperean edo digitalean aurkeztu ahal izango dira. Gutun-azal handi baten kanpoko aldean izengoitia idatzi; eta barruan, idazlanaz gain, beste gutun-azal bat sartu beharko da honako datuekin: izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa; baita helbide elektronikoa ere, izanez gero. Lanak turismo bulegoan aurkeztu beharko dira 2023ko martxoaren 10a (14:00) baino lehenago. Lehen saria 300 eurokoa izango da; bigarrena 200 eurokoa; eta saririk gabeko herriko lanik onenak 150 euro jasoko ditu, modalitate bakoitzeko.

Jendetsua izan da ohikora itzulita egin den 2023ko Urte Berriko Azoka

Ohi bezala, urtarrileko lehen larunbatean egin zen Debako Urte Berriko Azoka edo Soro feria. Feriaren helburua baserriko produktuen erakusketa, lehiaketa eta salmenta izaten dira. Fruta, barazki, ezti eta gazta lehiaketak antolatu ziren eta baita ganadu erakusketa ere. Fruta-lehiaketaren lehen saria Igorreko Iodiberri Goikoa Bekoa baserriko Urtza Sarrionaindiak

irabazi zuen. Barazki-lehiaketa Soruluzeko Arizaga baserriko Ezosi Etxeberriak, eta posturik onenaren saria ere jaso zuen honek. Herriko posturik onenaren saria, berriz, Iñaki Beristainek jaso zuen, Toki Eder baserrikoak. Elgoibarko Mausitxako Rosa Maria Salegik jaso zuen gazta-lehiaketaren lehen saria. Debaldeko ezti-lehiaketa ere egin zen, eta sari nagusia Bergarako Erlantz Olabarriari eman zitzaion.



Argazkia: Ander Salegi

¿Tienes alguna propuesta o sugerencia para el ayuntamiento?

Iradokizunik, proposamenik baduzu udalari egiteko?

Kalean konpondu beharreko zerbaitek zerbaitek duzue?

¿Te preocupa algo?

Kezkaren bat duzue?

¿Has visto algún desperfecto que arreglar en la calle?

ESAN UDALARI

www.deba.eus



Zona de lavado de bicicletas en el exterior del polideportivo

A finales de año se ha instalado una zona de lavado de bicicletas en el exterior del polideportivo, y cuenta con manguera y varios cepillos para uso particular.

El espacio es de uso libre y, por tanto, puede ser utilizado gratuitamente por las personas aficionadas a la bicicleta, tanto de la localidad como de fuera, cumpliendo las siguientes normas: Hacer un uso adecuado del espacio (no para jugar, ducharse, lavar perros o coches...).

No gastar agua en vano.

Una vez utilizado, dejar todo en orden para las siguientes personas que quieran utilizarla.

Hainbat lanpostuetarako deialdiak egin ditu Udalak

Urtarrila hasieran, lanpostuen egonkortze prozesuaren barruan, hainbat lanpostuetarako oinarriak argitaratu ziren. Ondorengo lanpostuei zuzendutakoa izan zen lan deialdia: Eguneko zentroko laguntzailea, Udaltzaina, administrari laguntzailea, Deba Musikal Patronatuko administraria eta irakasleak, gizarte langilea, ingurumen teknikaria eta liburuzain laguntzailea. Halaber, Udaltzain buruaren postua betetzeko deialdia ere egin da. Epe laburrean hasiko da azken hau bere jardunean.

Musikaz eta kolorez blaitu dira kaleak inauterietan

Aurten ere kaldereroak eta inauteriak egin dira herrian, lehenengoak bigarrenari eman dio ongietorria. Berrikuntza bat ere egin da inauterietan, izan ere, aurtengo egitarauan, larunbatean egin ohi den mozorro lehiaketan herritarrek bozkatzeko aukera izan baitute eta baita irabazlea hautatu ere.

Musika Banda Gaztearen kalejirarekin abiatu ziren ospakizunak ostiralean, otsailaren 17an. Musika, desfilea, ikuskizunak... ez dira falta izan herrian.

MARTXOA

- 7: HAUR JOLASAK** 16:30 BASTIÑUIXAN
- 8: EMAKUEEN NAZIOARTEKO EGUNA** (IKUS 15. ORRIAN EGITARAU)A)
- 11: EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA,** GIPUZKOAKO KANPORAKETA 15:00 Aldats pilotalekua
- 12: IRULEAK PALA AZKARRA TXAPELKETA** 10:00 Aldats pilotalekua
IPUIN KONTALARIAK 17:30 Ispiluen gela
- 14: HAUR JOLASAK** 16:30 BASTIÑUIXAN
- 16: CIMASUB ZIKLOA** 18:30 Kultur Elkarte
- 17: MIÑAN** (Amets Arzallus eta Ibrahim Balde) liburuaren aurkezpena 18:30 Ispiluen gela DBH4ko ikasleen **MODA DESFILEA** Aldats pilotalekua
- 19: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte
- 21: HAUR JOLASAK** 16:30 BASTIÑUIXAN
- 23: CIMASUB ZIKLOA** 18:30 Kultur Elkarte
- 25: TXIRRINDULARITZA KADETEEN LASTERKETA**
- 26: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte
- 30: CIMASUB ZIKLOA** 18:30 Kultur Elkarte
- 31: KULTUR EGIN XAHU + JAZZ JAMM SESSION** 22:00 Kultur Elkarte

APIRILA

- 1: MERKATU TXIKIA** 9:00 Estalitako Pasealekua
- 2: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte
- 15: TXIRRINDULARITZA JUBENILEN LASTERKETA**
- 16: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte
- 21: IPUIN ETA ILUSTRAZIO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA** 11:00 Osoko bilkuren aretoa
“DEBA EHUN HITZETAN” SARI BANAKETA 19:00 Kultur Elkarte
- 22: LIBURUAREN EGUNA** 12:00 Kultur Elkartean: LIBURU AZOKA, MIKRO IREKIA, BERMUT LITERARIOA
KULTUR EGIN:
RUPER ORDORIKAREN kontzertua 22:00 Kultur Elkarte
- 23: TXIRRINDULARITZA ZIKLOTURISKTAK**
IPUIN KONTALARIAK 17:30 Ispiluen gela
DEBADEZINE 19:00 Kultur Elkarte
- 30: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte

MAIATZA

- 6: MERKATU TXIKIA** 9:00 Estalitako Pasealekua
- 7: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte
- 14: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte
- 17: Agenda 2030 PLENO TXIKIA** 11:00 Osoko bilkuren gela
- 21: DEBARREN EGUNA**
- 28: DEBADEZINE** 19:00 Kultur Elkarte

Geoparkezaleak komunitatea: lurraldearekiko konpromisoa eta tokiko garapenerako erraminta



Euskal Kostaldeko Geoparkearen entitate laguntzaileak biltzen dituen talde dinamikoa eta irekia da Geoparkezaleak komunitatea. Gaur-gaurkoz Debako, Mutrikuko eta Zumaiaiko 22 entitate biltzen ditu sareak. Lurraldearekiko atxikimenduak eta ingurune sozial eta naturalarekiko konpromisoak batzen gaitu, eta ekimenaren asmoa da Geoparkearen bueltan topagune irekia eta parte-hartzailea eratzea.

Geoparkea zer den eta zer balio dituen zabaltzea du helburu nagusi eta tokiko garapenerako ekimenak bultzatzen ditugu, bertako ekonomia eta garapen jasagarria sustatuz. Naturarekin, ingurumenarekiko errespetuarekin eta tokiko ekonomiaren garapenarekin lotuta eta konprometituta dauden entitateak osatzen dute sarea.

Sinetsita gaude Geoparkea lurralde berezia dela. Bertako ondare geologikoak eta naturalak, historiak, hizkuntzak, kulturak, tradizioek eta, bereziki, bertan bizi den jendarteak egiten dute ezberdin Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea, Euskadi mailan ez ezik, baita nazioarte mailan ere. Harro egoteko moduko izaera, nortasuna eta

balioak dauzkagu. Lurraldearekiko atxikimendu sendo eta emozio horrek Geoparkezaleak komunitatea sortzera eramán gaitu; topagune ireki eta parte hartzailea. Geoparkea, buruz zein bihotzez, bizi eta sentitzen dugulako.

Geoparkearen entitate laguntzaile dira kalitate eta etengabeko hobekuntza prozesuetan murgilduta dauden turismo arloko entitate eta enpresak, Deba, Mutriku eta Zumaiaikoak. Eskaintzen dituzten zerbitzuak eta produktuak ikuskatuak izan dira eta agerikoa da Euskal Kostaldeko UNESCOren Geoparkearekiko, naturarekiko, ingurunearekiko zein iraunkortasunarekiko duten konpromisoa. Era berean, entitate hauek Euskal Kostaldeko UNESCOren Geoparkearekiko zein jasagarritasunarekiko konpromiso irmoa berretsi dute, Turismo Jasagarriaren Europako Kartaren eta ekoturismoaren ildotik.

Gaur egun, sareak turismo arloko entitateak biltzen ditu, baina atxikimendu gehiago jaso eta hazten joatea da asmoa. Honela, pixkanaka sarera batu ahal izango dira Geoparkeko ikastetxeak, elkarteak, bestelako kolektiboak eta baita norbanakoak ere.



Herri baratza egitasmoa jarri du martxan Itziarko Auzo Udalak


Apaizetxea eraikinarekin batera honi lotutako lursailak errentan hartu zituen Itziarko Auzo Udalak orain dela urte eta erdi, gotzaitegiarekin sinatutako adostasunaren ondoren. Elizaren ipar mendebaldean kokatutako jabetza publikoko zatiaren jarraian kokatuta egonik, herritarren erabilerarako eremua hedatzeko aukera ahalbideratu du konponbide honek. Herri txikietan ohikoa denez, aspaldikoa da Itziarren ere laborantzarako ohitura bertatik bertara, eta lehenik zenbait baratza partikular ustiari izan dira lursail honetan. Erabilera publikorako baliatzearekin, herri baratza proiektua landu du Itziarko Auzo Udalak sei hurbat metro koadroko esparrua egokituz, egungo baldintzen arabera antolatu eta bizilagunei zabalduz aukera.

Biztanleei aisialdirako eta jarduerarako espazioa eskaini, inguruan erabiltzen ez diren eremuak erabilera publikoetarako berreskuratu, herritarren partaidetza eta garapen iraunkorra sustatu, iraunkortasuneko politikak antolatu, herritarren biodibertsitatearen zaintzan inplikatu, baratzak heziketarako eta jolaserako duen balioa indartu, elikadura osasungarria bultzatu eta belaunaldien arteko harremanak sustatzea dira, besteak beste, egitasmo honen helburuak.

Aisiarako baratzak behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoak diren zerbitzu orokorrak eta premiak xedatu ditu auzo udalak, kontratatutako alorreko enpresa baten gidaritzapean. Behin lursaila birmoldatuta, hirurogei metro karratu inguruko hamar baratza eratu dira bertan, oinarritzko hornikuntzak biltzen dituen guneaz gain. Ondoren, bete beharreko baldintzak ezarri eta deialdia

argitaratu ondoren, jasotako erreklamazioak ebatzi, onartu eta behin betiko zerrenda argitaratu da. Hortaz, zozketa bidez izendatu dira zenbakitutako partzelak eta gainontzekoekin itxaron zerrenda bat osatu da.

Baratzaren erabilerako baimena ebazpen bidez gauzatu da eta lagapenaren titularrak behartuta daude baratza lantzerako lanabes egokiak erabiliz nekazaritza tradizionalaren balioak errespetatuz eta ezarritako printzipio orokorrak betearaziz. Adibidez, baimenaren iraupena urtebetekoa izango da eta titularitatea ezingo da eskualdatu. Bestalde, lursailaren ustiaketa doakoa izanik, baratzagintzari lotuta antolatu daitezkeen gizarte ekintzetan laguntzea eskatuko zaie ordainetan erabiltzaileei, hala nola, ondoan kokatutako eskolako baratzaren kudeaketan inplikatzeko, ikasleekin jakintza eta zaletasuna partekatuz.



ehbildu



HERRI EREDUA LEHENTASUN

2023rako, gure asmoa zein herri eredu nahi dugun definitzen hastea da. Azken hilabeteotan egin dugun lanketak eta hausnarketak (Hirigintza Batzorde Mistoko bost saio egin ditugu irailaz geroztik) gure ibilbide orria zehazten lagundu digu.

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPOa) eguneratzea izango da datozen urteetako erronka nagusia. Baina, horretarako, oso garrantzitsua iruditzen zaigu herritarrekin batera zein herri eredu nahi dugun hausnartzea (zaintzaren arloan, ekologiaren arloan, kulturaren arloan, berdintasunaren arloan, gobernantzaren arloan, ekonomiaren arloan...).

Etxebizitza plana eta azterketa sozio-ekonomikoa martxan jartzearekin eman nahi diogu hasiera prozedura honi. Horrela, herritarren nahiak eta beharrak zehaztuko dituen udalerriko argazki orokorra osatuko dugu. Hau guztiarekin batera, HAPOaren lanketarako parte-hartze prozesua ere diseinatuko dugu.

Gai estrategikoetatik haratago, eguneroko lanean eragina dutenei ere heldu behar zaie, hor ere nolakotasunaren garrantzia nabarmentzen dugu. Aurrekontuak eguneroko jardunean duen garrantzia ezagututa, akordioaren bidea hobetsi dugu udalaren eta herriaren hobe beharrez. Bide zaila eta luzea izan arren, behin igarota, lana ondo egin ahal izateko ezinbestekoa den oreka lortu dugu.

Herria ehuntzen jarraitu nahi dugu, guztion artean udalerriko koloretsuagoa, biziagoa, parekideagoa, euskaldunagoa, inklusiboagoa, komunitarioagoa, jasangarriagoa eraikitzen jarraitzeko.

Durante el 2023 queremos empezar a definir qué modelo de municipio queremos. El trabajo y la reflexión que hemos realizado en los últimos meses (nos hemos reunido en cinco sesiones de la Comisión Mixta de Urbanismo) nos ha ayudado a definir nuestra hoja de ruta.

La actualización del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) será el gran reto de los próximos años. Para ello reflexionaremos junto con la ciudadanía sobre el modelo de municipio queremos (en el ámbito del cuidado, de la ecología, de la cultura, de la igualdad, de la gobernanza, de la economía, ...).

Este procedimiento lo iniciaremos con la puesta en marcha del Plan de vivienda y del Estudio socio-económico. Así, obtendremos la foto general del municipio que determinará los deseos y necesidades de la ciudadanía. Paralelamente, diseñaremos el proceso participativo para la elaboración del PGOU.

Más allá de los temas estratégicos, también hay que abordar los que influyen en el trabajo diario, también destacamos la importancia de la manera de hacer. Teniendo en cuenta la importancia del presupuesto en la actividad diaria, hemos priorizado el acuerdo por el bien de la dinámica administrativa y local.

Queremos seguir tejiendo el municipio para seguir construyendo entre todas un municipio más colorido, más vivo, más paritario, más euskaldun, más inclusivo, más comunitario, más sostenible.

ZALANTZAZ BETERIKO ETORKIZUNA!

Laster zortzi urte, 2 legegintzaldi beteko dira Debarren Ahotsa sortu zenetik. Lehen 4 urteak, EAJ/PNVrekin batera gobernatzen eta herriarentzat lan garrantzitsua egiten, non honako proiektu hauek azpimarra daitezkeen: hilerri berria eraikitzea, Santa Katalina erostea, Astillero, Angulero eta Maxpe kaleak berrurbanizatzea, zubia berreraikitzeke egindako kudeaketak, eta gizarte-zerbitzuen esparruan egindako hobekuntza nabarmenak ahaztu gabe.

Azken legegintzaldi honetan, Debarren Ahotsa bigarren indar bozkatuena izanik eta EAJ/PNVrekin berriro gobernatzeko aukera izan arren, oposiziotik jarrera kritikoa, baina aldi berean eraikitzailearekin jarraitu dugu lanean, alderdi politikoen siglak ahaztuta.

Unea da Alderdi Jeltzaleak bere erabakiaren akatsa onartzeko, gobernu EH Bilduren esku utzita, eta Debako etorkizunean bere interes pertsonalen gainetik pentsatzeko.

Norabide askotan lan egin dugu, batez ere etxebizitza gaiaren inguruan. Behin eta berriz helarazi diogu EH Bilduri gure kezka, baina udal gobernu honentzat ez da lehentasunezko gai bat izan, eta beraz, ez da aurreratu nahiko genukeen guztia.

Herriarengandik jasotako babesa eskertu nahi dugu, eta legegintzaldi honetan lanean jarraituko dugu, etorkizunari begira dauden beharrak zehazteko.

¡UN FUTURO INCIERTO!

Han pasado prácticamente 8 años, 2 legislaturas desde que surgió Debarren Ahotsa. Los primeros 4 años gobernando juntamente con EAJ/PNV y realizando una labor importante para nuestro pueblo, donde se pueden destacar proyectos como: construcción del nuevo cementerio, compra de Santa Catalina, reurbanización de las calles Astillero, Angulero y Maxpe, las gestiones realizadas para la reconstrucción del puente, y sin olvidarnos de las mejoras significativas en el ámbito de los servicios sociales.

En esta última legislatura, siendo Debarren Ahotsa la segunda fuerza más votada y aunque podría haber seguido gobernando nuevamente con EAJ/PNV, ha seguido trabajando desde la oposición con una postura crítica pero a la vez constructiva, olvidándonos de las siglas de los partidos políticos.

Es el momento de que el Partido Nacionalista Vasco reconozca el error de su decisión, de dejar gobernar a EH Bildu y que piense en el futuro de Deba por encima de sus intereses personales.

Señalar que hemos trabajado en muchas direcciones y en especial en el tema de la vivienda, transmitiendo a EH Bildu nuestra preocupación por dicho asunto, si bien consideramos que desde el gobierno municipal no lo han impulsado, ni avanzado todo lo que nos hubiera gustado.

Agradecer el apoyo recibido por el pueblo y que en lo que queda de legislatura seguiremos trabajando con el objetivo de establecer las necesidades de cara a un futuro.



PROIEKTUAK ETA PERTSONAK

Legegintzaldi hau amaitzera doa eta Debako EAJ-PNVtik eskerrak eman nahi dizkiegu modu eraikitzailean eta adostasunetik eta elkarriketatik jarrera hori gabe ezinezkoa izango zatekeen proiektuak aurrera ateratzea ahalbidetu duten pertsonari. Bidezkoa da Iñigo Cambronero, Miren Esnal eta Eneritz Gómezen lana, dedikazioa eta zintotasuna aitortzea, duela lau urte hauteskunde-programan konpromisoa hartu genuen eta EAJ-PNV Debako proiektu globalaren parte diren proiektuak bideratzen eta zuzentzen jakin dutelako.

Proiektu hau defendatu dugu Debari eta bertako biztanleei merezi duten lekua itzuli behar zaiela uste dugulako, eta datozen lau urteetarako asmo handiko proiektu bat definitu dugu, gure ustez mugarri izango dena.

Eskerririk asko EAJ-PNVrengan eta bere pertsona-taldearengan konfiantza jarri duzuen guztiei. Deba hobe lortzeko lanean jarraituko dugu, aurpegi berriekin, proiektua fidagarritasunez defendatuko dutela sinetsita.

PROYECTOS Y PERSONAS

Va a finalizar esta legislatura y desde EAJ-PNV de Deba solo nos queda agradecer a las personas que han posibilitado de manera constructiva y desde el consenso y el diálogo sacar adelante proyectos que sin este talante hubiera sido imposible. Es justo reconocer el trabajo, la dedicación y la honestidad de los tres concejales Iñigo Cambronero, Miren Esnal y Eneritz Gómez, por haber sabido trasladar y dirigir los proyectos con los que nos comprometimos en el programa electoral hace cuatro años y que forman parte del proyecto global de EAJ-PNV Deba.

Hemos defendido este proyecto porque creemos que es necesario devolver a Deba y a sus habitantes el lugar que se merecen y hemos definido un proyecto ambicioso para los próximos cuatro años que creemos que marcará un antes y un después.

Eskerrikasko a todos los que han depositado la confianza en EAJ-PNV Deba y su equipo de personas, seguiremos trabajando para hacer posible un Deba mejor, con nuevas caras pero convencidos de que defenderán el proyecto con solvencia.



UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

GILEN GARCIA BOYRA

ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA

alkatea@deba.eus

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

itziaririzar@deba.eus

ARITZ LARRAÑAGA UNANUE

ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIK)

aritzlarranaga@deba.eus

ANTXON ETXEBERRIA LARREA

HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

antxonetxeberria@deba.eus

NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA

EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA
EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA,
MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

nereearrizabalaga@deba.eus

ANTXOKA ELORZA ALTUNA

OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA

antxokaelorza@deba.eus

Portu kalea, 1

+34 943 192 840

info@deba.eus



DEBAKO UDALA

Debako Udala Debako Udala @DebakoUdala Debako Udala



“Probatzea asko gomendatzen dut, gauza asko ikasteko aukera ematen baitu”

Aitzuri abesbatzako zuzendaria da Xabier Carrillo 2020. urtetik. Musika zalea txikitatik, duela 28 urte hasi zen Aitzurin, eta abestu du beste abesbatza batzuetan ere. Bost urtez Ingalaterran aritu da bizitzen, eta atzerria ez da oztopo izan musika koralean jarraitzeko. Itzuli zenean Donostiako Orfeoiean egin zituen bospasei urte, baina beti ibili da Debako abesbatzaren inguruan. Aitzuriren eguneroko jardunaz eta abesbatzaren ezaugarriez aritu da.



Xabier Carrillo
AITZURI ABESBATZAKO ZUZENDARIA
Deba, 1979

Nortzuk osatzen duzue abesbatza?

Guztira, 30 kide inguru biltzen ditu abesbatzak. Horietatik hamar gizonezkoak dira, eta, gainerakoak, emakumeak. Adinari dagokionez, 40 urte inguru dituzte gehienek, baina badaude gazteagoak ere.

Zein abesti kantatzen dituzue?

Klasikoenetatik hasi eta XX. mende amaiera bitarteko lanak abesten ditugu; Erdi Aroko Ave Maria batetik, Leonard Cohenen Hallelujah abestiraino, tartean dagoen guztia kontuan hartuta.

Eta nola aukeratzen dituzue?

Beti galdetzen zaie abesbatzako kideei zer abestu nahiko luketen. Gero, ordea, aztertu behar da proposatutako abestiak lau ahotsetara armonizatu daitezkeen, instrumentuak behar dituzten, a capella abestu daitezkeen... Hori guztia hartu behar du kontuan, eta zuzendariak du azken hitza.

Noiz izaten dira entseguak?

Astean bitan egiten ditugu entseguak: asteartetan eta asteazkenetan, horietan elkartzen baita kide kopuru handiena. Debako musika-eskolan entseatzen dugu, gaueko bederatzietatik hamar eta erdietara. Saioak ez dira beti berdinak izaten, batzuetan guztiok batera entseatzen dugu, eta beste batzuetan, ahotsetan banatuta egiten dugu. Egunak eta saioak aldatu egiten dira jendearen arabera.

Zein dira abesbatzaren urteroko kontzertuak?

Udalarekin hainbat egun dauzkagu adostuta, eta urtero errepikatzen dira: Santa Ageda, abuztuaren 14ko salvea, Santa Zeziliako kontzertua, abenduaren 24an eta 25ean mezan abestea... Horiez gain, Itziarko erromesaldian abesten dugu, Deban beste kontzertu pare bat egiten ditugu eta herritik kanpo ere izaten da beste bat. Kontzertuak normalean a capella izaten dira, baina uztailan, Deban, pianoarekin izan zen. Orkestrekin ere egin izan ditugu kontzertuak, eta baita organoekin ere. Instrumentuekin batera oso gustura aritzen gara, eta jendea ere asko gustatu zaio.

Zer esango zenioke abesbatzan hasi ala ez zalantzan dagoenari?

Izena emateko. Oso ondo pasako du eta gauza asko ikasiko ditu, besteak beste, arnasketa kontrolatzen, ahotsa ez urratzen eta ahozkotatzen lantzen. Lagunarteko giro ona dugu. Probatzea asko gomendatzen dut, hilabetez behintzat.